

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera gure **APP**-a eta **hozkailu teknologia patentatua** izango da, gure produktuaren diseinua eta gure aplikazioaren mantenu zerbitzua eta bezeroenganako harremanak garrantzitsuak direlako guretzako. Horrekin batera, bezeroei sortzen zaizkien arazoak konpontzea saiatuko gara.

Gainera, **lau bazkide** geranez bakoitzak funtsezko ardura bat izango du, eta honako hauek izango dira; **Aiorak**, kontabilitatea eta administrazio lanetaz arduratuko da, batez ere matematikak ondo menperatzen dituelako eta zenbakiren bat gaizki baldin badago zuzentzeko kapaza delako; **Kevin** komertzial lametaz arduratuko da, hozkailu enpresak bisitatuko ditu eta atzerriko enpresekin harremanetan jarriko da (hizkuntza asko hitzegiten dituelako), gainera harremanetarako pertsona egokia da; **Iraiak** gure bezeroek egiten gaituzten deiak eta mezuak erantzungo dituen pertsona izango da, hauen kexak eta zalantzak entzuteko hobekien prestatua dagoena delako; eta azkenik, **Rakelek** Kevin bezala komertziala, baina bere kasuan bertako enpresekin jarriko da harremanetan komunikatzeko gaitasun handiak dituelako, gainera bera izango denez aplikazioaren ezagutzari buruz informazio gehiena izango duen pertsona berak kontrolatuko du aplikazioa, bertan arazoren bat baldin badago berehala zuzentzeko.



FUNTSEZKO JARDUERAK

Ekoizpenari dagokionez; patentearen erabilera hozkailu enpresa ekoizle bati saldu ondoren, beraiek produktua ekoiztuko dute, beren banaketa kanalak erabiliz salduz.

Arazoak, gure beste motatako jarduerak izango dira, produktu guztientan noiz behinka arazoak sortzen direlako eta hauek ekiditzeko prest egongo gera. Alde batetik; hozkailuetan sortu daitezken arazoak daude, haien artean; matxurak piezetan, ala nola gure kamara, jarritako pisuan etabar. Arazo honen konpontzailea, hozkailu enprensen zerbitzu teknikoak arduratuko dira, baina hori ez du esan nahi guk ez dugula bertan laguntzarik emango. Bestalde, aplikazioan sortu daitezken arazoak izan daitezke; eta hauek konpontzeko Raket egongo da, esan bezala, bera baita informatikari buruz ezagutza gehien dituen pertsona.

